

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko azaroaren 11tik 17rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/11/15

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko urriaren 31koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita Loterías y Apuestas del Estado estatuko sozietatearen merkataritza-ordezkaritzetarako hitzarmen kolektiboaren 2023. urterako luzapenari eta ordainsarien berrikusketari buruzko erabakia. **23186 xedapena- 2 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko urriaren 31koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira hegaztien eta beste animalia batzuen haztegiatarako estatuko hitzarmen kolektiboaren 2022. urterako behin betiko soldata-taulak. **23187 xedapena- 4 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko azaroaren 3koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita aseguru pribatuen bitartekaritzako enpresen hitzarmen kolektiboa. **23188 xedapena- 82 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko azaroaren 3koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita ekintza eta esku-hartze sozialeko estatuko II. hitzarmen kolektiboaren aldaketa. **23191 xedapena- 13 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2023/11/15

- **EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA. Lan eta Enplegu Saila.** Bizkaiko Ehunkien Merkatarizako Hitzarmen Kolektibo probintziala (48000595011982 hitzarmen-kodea) (akatsak zuzentzea). **III-227 xedapena - 1 or.**

2023/11/16

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboaren 2024ko laneko egutegia erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (48000715011981 hitzarmen kodea). **III-224 xedapena - 3 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/11/11

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza. Ekitaldiaren itxiera.** ISM/1207/2023 Agindua, azaroaren 6koa, zeinaren bidez arautzen baitira 2023ko ekitaldia ixteko eragiketak Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten erakundeentzat. **22855 xedapena- 7 or.**

2023/11/14

- **ESPAINIAKO BANKUA. Kreditu-erakundeak.** 3/2023 Zirkularra, urriaren 31koa, Espainiako Bankuarena, zeinaren bidez aldatzen baitira, batetik, kreditu-erakundeentzako 2/2016 Zirkularra, otsailaren 2koa, ikuskaritzari eta kaudimenari buruzkoa, zeinak Espainiako ordenamendu juridikoa 2013/36/EB Direktibaren eta 575/2013 Erregelamenduaren (EB) arabera egokitzeko prozesua osatzen baitu; eta bestetik, kredituko finantza-establezimenduentzako 1/2022 Zirkularra, urtarrilaren 24koa, likidezari, prudentzia-arauei eta informazio-betekizunei buruzkoa. **23052 xedapena- 21 or.**

2023/11/15

- **OGASUNeko ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Gastu publikoak. Ekitaldiaren itxiera.** HFP/1226/2023 Agindua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baitira 2023ko ekitaldia ixteko eragiketak, gastu-aurrekontuaren eta aurrekontuz kanpoko eragiketen ingurukoak. **23118 xedapena- 6 or.**
- **GARRAIOETAKO, MUGIKORTASUNeko ETA HIRI AGENDAko MINISTERIOA Laguntzak.** TMA/1227/2023 Agindua, azaroaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira azaroaren 16ko 983/2021 Errege Dekretuaren I., III. eta V. eranskinak. Errege-dekretu horrek onartzen du zuzenean ematea autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoei errepideko garraio-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa

pribatuetako bidaiarien eta salgaien garraio-flotak eraldatzeko laguntzak, bai eta garraio pribatu osagarria eskaintzen duten enpresetarako laguntzak ere, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. **23117 xedapena- 7 or.**

2023/11/16

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Memoria historikoa.** 9/2023 Legea, irailaren 28koa, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoarena. **23216 xedapena- 28 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Hezkuntza.** 2/2023 Legegintzako Dekretua, irailaren 21ekoa, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen testuategina onesten duena. **23217 xedapena- 35 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Antolamendua.** 3/2023 Legegintzako Dekretua, irailaren 21ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoari buruzko Legearen testuategina onesten duena. **23218 xedapena- 6 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Irakasle funtzionarioen kidegoak.** 4/2023 Legegintzako Dekretua, irailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoen Legearen testuategina onesten duena. **23219 xedapena- 26 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Euskadiko ereserkia.** 5/2023 Legegintzako Dekretua, irailaren 21ekoa, Euskadiko Ereserki Ofizialari buruzko Legearen testuategina onesten duena. **23220 xedapena- 3 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Institutuzioak. Egoitzak.** 6/2023 Legegintzako Dekretua, irailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearen Egoitzaren Legearen testuategina onesten duena. **23221 xedapena- 2 or.**

2023/11/17

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Izendapenak.** 828/2023 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Pedro Sánchez Pérez-Castejón jauna gobernu-presidente izendatzen duena. **23302 xedapena- 1 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2023/11/15

- **HEZKUNTZA SAILA.** 164/2023 DEKRETUA, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleek hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak finantzatuta daukaten eskola-garraioari buruzkoa. **5131e xedapena- 16 or.**
- **OSASUN SAILA.** AGINDUA, 2023ko urriaren 24koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuaren I. eranskina: «Gaixotasun infekziosoren bat duten pazienteekin kontaktuan egoteagatik sortutako hondakin infekziosoen zerrenda (II A Multzoa)». **5132e xedapena- 3 or.**

2023/11/16

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** 162/2023 DEKRETUA, urriaren 31koa, zeinaren bidez laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen baita, eta enpresa horietan sartzeko prozedura eta haien erregistroa ezartzen baitira. **5150e xedapena- 14 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2023/11/14

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 387/2023 FORU AGINDUA, irailaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 1047/2018 FORU AGINDUA, ekainaren 12koa, eragiketa lotuen eta paradisu fiskaltzat jotako herrialdeekin edo lurraldeekin lotutako eragiketen eta egoeren aitorten informatiborako 232 eredua onestekoa. Akatsen zuzenketa. **I-1356 xedapena - 8 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Día 16/11/2023

- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2023/2495 Erregelamendu Delegatua (EB), 2023ko azaroaren 15ekoa, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Direktiba aldatzen baitu, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratu publikoetarako eta proiektu-lehiaketetarako atalaseei dagokienez. **L-2495 xedapena- 2 or.**
- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2023/2496 Erregelamendu Delegatua (EB), 2023ko azaroaren 15ekoa, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Direktiba aldatzen baitu, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratu publikoetarako eta proiektu-lehiaketetarako atalaseei dagokienez. **L-2496 xedapena- 2 or.**
- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2023/2497 Erregelamendu Delegatua (EB), 2023ko azaroaren 15ekoa, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB Direktiba aldatzen baitu, emakidetarako atalaseei dagokienez. **L-2497 xedapena- 2 or.**
- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2023/2510 Erregelamendu Delegatua (EB), 2023ko azaroaren 15ekoa, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/81/EB Direktiba aldatzen baitu, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratu etarako atalaseei dagokienez. **L-2510 xedapena- 2 or.**
- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2023/2493 Erregelamendu Betearazlea (EB), 2023ko azaroaren 15ekoa, kontu nazional etako BEZen iruzurraren edo kaudimenik ezaren ondorioz bildu gabeko BEZen tratamenduari buruzkoa (BEZaren sarrera teorikoen eta benetan jasotako sarreren arteko aldea), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/516 Erregelamendua —nazio-errenta gordina merkatu-prezioetan harmonizatzeari buruzkoa— aplikatzeari begira. **L-2493 xedapena- 7 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO